

BEZEROEKIN HARREMANA:

Gure bezeroek sare sozialen bidez eta web orri baten bidez, guk eskaintzen dugun zerbitzua ikusi eta aztertzeko aukera dute. Baina bezero posible batek gurekin harremanetan jarri nahi izaten duenean, telefono zenbaki baten bidez, whatsapppe, komunikatzen gara.

Bertan, guk gure eskaintza bidaltzen diegu, eta bezeroek zerbitzuarekin aurrera jarraitu nahi dutenean, ondorengo datuak zehazten hasten dira: eguna, ordua, denbora, pertsona kopurua, adina, prezioa...

Behin datu hauek whatsapp bidez zehaztuta, lokala erabili baino egun batzuk lehenago, proiektuko kideetako bat fisikoki bezeroekin hitz egitera joaten da. Alde batetik lokaleko arauak zehazteko eta arau hauek bete ezean, abian jartzen diren ondorioen berri emanteko. Bertan, baldintza guzti hauek biltzen dituen dokumentu bat sinatu behar izaten dute; ondoren, zerbitzua eta fidantza ordaintzen dituzte, eskudirutan edo Bizum bidez. Azkenik, lokala irekitzeko giltza ematen zaie.

Zerbitzuaren amaieran, bezeroa eta proiektuko kideetako bat berriro elkartzen dira giltzak itzultzeko eta lokalaren egoera ikusteko. Dena ondo badago, fidantza itzultzen zaio bezeroari.